



Izenburuak nolabaiteko kezka eragin eta lehen lerrotxo hauek –sikiera hasierakoak– irakurtzera bultzatzen bazaitu ez daukazu meritu gutxi, irakurle saiatu horrek. Izan ere, pil-pilean dagoena baino erretzen duen gaia bait da Europako txanponena.

Europako moneten krisi hau hainbestearainokoa ote dugu? Zer dela eta heldu gara egungo oilategi monetario honetara? Noraino iritsiko da krisia? Eta lehertzen bada, zeintzuk dira alternatibak? Galdera gehiegi erantzunak, erantzun egoikiak, hain urri direnean.

Konturatuko zinen monetaz edo txanponaz ari garela. Nahiz eta lotura estua izan, ez da hemen EEE zein Maastricht-eko Itunaren inguruko ekonomi eremuko beste aipamenik egingo, diruaren gaurko egoerarekin duten zerikusia aztertzeke ez bada.

“EEEren oraingo krisi honen sustraiak Alemaniako batasunean aurkitzen dira. Orain arte Europako Elkartek nahikoa oreka egonkorra izan du Alemania, Frantzia eta Erresuma Batuaren artean,

Italia gertutik hurbiltzen zitzaielarik. Duela belaunaldi bat, hiru herrialde horien BPG (Barne-Produktu Gordina) antzekoa zen. 2000. urterako oster, Alemaniako produkzioa Frantzia eta Erresuma Batuak elkaturik izango dutenaren parekoa izatera iritsiko da. Orain Alemaniak Europa menperatzen du eta ez da Europako kide bat, kidea baino gehiago da. Horrez gain, Alemaniak egungo Europarekiko alternatibak ditu. Alemaniako markoa duela 30 urteko dolarra bezalakoa da. Europako ekialdean Alemaniaren inbertsio-maila eremu horretan dagoen kanpo-inbertsio guztiaren erdia baino handiagoa da”.

Hitz hauek Romano Prodi, zortzi urtez Italiako IRI (hemengo INIren baliokidea) institutuko lehendakari izandakoarenak dira¹. Gordinak eta argiak. Ez dio zalantzari aukerarik txikiena ere eskaintzen. Hala ere, beste faktore batek ere berebiziko garrantzia izan du moneta-krisi honetan: herrialde batzuek be-

ren ekonomia erreal eta finantzarioen artean duten disperekotasuna, edo bestela esanda, finantz ekonomia eremuak egungo ekonomi sistema kapitalistetan duen autonomia, zeinak espekulazio gogorra bultzatzen bait du.

Europako Moneta-Sistemaren atzetik

Gogoan izan EEE sortu zuen Erromako Ituna, kapitalismoaren historian izandako ekonomi hazkuntzarik bizkorrenaren garaian hitzartu zela. Testuinguru honetan ekonomiaren batasun-bidea jorratzeko lehentasunak nekazaritza eta moneta-arloetan ezarri ziren. Sei kide fundatzaile ditugu –Frantzia, Italia, Alemaniako Errepublika Federala, Belgika, Herbehereak eta Luxemburg–, seiak sistema produktibo garatu eta eraginkorrak izanik².

Sistema produktiboen garapenerako joera zela medio, sei ekonomi eremu hauek berezko hurbiltasuna izango zutelako ustea zegoen.

Beraz, lehentasuna moneta-arloaren konbergentziari eman behar zitzaion³ eta honela sortu ziren "suge monetario" bezala ezagutzen dena lehenik eta Europako Moneta-Sistema (EMS) ondoren. Honela, jaitoz, Europako Moneta-Batasuna (EMB) batasun politikoa eta ekonomikoa lortzeko Elkartearen helburu estrategiko nagusia dela esan daiteke. EMBera heltzeko tresnak aipatutako EMS eta Gantzioen Mekanismo Erregulatuzailea (GME) dira gaur egun.

Zertan datza sigla-nahaspila hau? Laburtuz, EMS 1979an sortu zen "suge monetarioa" ordezkatuz eta moneta berri bat -ECU- ezarri. ECU delakoa EMSko txanpon guztiek osatzen duten saski ponderatua da (ikus irudia). Gainera, EMSn parte hartzen duten herrialde guztietako moneten gantzio-tartek ECUrekiko fluktuazio-tarte mugatu baten barnean egon behar dute: $\pm 2,25$ ekoa txanpon guztientzat, libra, eskudo eta pezetarentzat ezik, azken hauen tartea ± 6 koa izanik. Azkenik, GMEaren bitartez, txanpon bakoitzak ECUrekiko gantzio-tasa finkoa du.



E EMSren kontraesanak

EMSren helburua EMB, hots moneta bakarra gehi Europako Banku Zentrala, lortzea da. Horra heltzeko moneta-arteke fluktuazio eza da beharrezkoa. Baina, Europako moneten gantzio-tasen finkapena eta beraien arteko paretotasunen ustegabeko errebisioaren posibilitatea erregulatzen ditu hein berean EMSk. Eta honetan datza lehen kontraesana, zeren eta EMS bere azken helburutik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta azkarragoak izango bait dira fluktuazioak, EMSren egonkortasuna kolokan ipiniz eta EMBtik urrunduz. Beste era batera adieraziz, EMSk moneta-merkatuaren liberalizazioa du filosofia gisa, baina merkatu honetan sortzen diren disfuntzioak zuzentzeko mekanismo erregulatuzailea arautzen du.

Bestetik, ekonomia erreala edo produktiboa eta finantzarioaren arteko distantziaren arazoa ere hor dago. ECUrekiko tarte estuan mantentzeko konpromezuak Estatueta-ko moneta-politiken ahalmena eta, beraz, bere eraginkortasuna mugatu egiten du eta herrialde depri-

tuenetan produkzio-sistemaren hondoraketa areagotzen du egoera honek. Bigarren kontraesana hauxe dugu: moneta-batasuna, kide diren herrialdeetako ekonomia errealean arteko hurbiltasunaren aurretik eraikitzekeo dinamika (edo etxea teilatutik hastea).

Maastricht EMSren pausaleku

EMSren historian egonkortasun eza eta aldaketak dira nagusi. Hasieratik ezagutu den joera honakoa izan da: markoaren eta bere laguntzailea den florin holandarraren indartze etengabea eta beste txanpon gehien devaluazioa 80.eko hamarkadan zehar.

Egoera honetan, pezeta 1989an sartu zen EMSn, hasieratik pezeta- gantzio-tasa oso gora ezarri. Ondoren, libra esterlina eta eskudo portugesa sartu ziren. Honela, 1991n EMSko hamaika monetak oreka larrian aurkitzen ziren, Maastricht-era lehenbailehen heltzeko agindua eman zenean trenaren abia- da azkartuz. 1995 baino lehenago behar zen iritsi, ekonomi krisiaren

atzeraldari berri baten atarian egoteari jaramonik egin gabe.

Eta berri honetan Maastricht-en baldintza berriak ezartzen dira, hamarkada honen buruan moneta bakarra eta Europako Banku Zentrala lortu asmoz (hauxe da famatu egin den Itun honen gune eta ardatza).

Moneta bakarra lortzeko Maastricht-en egindako diseinuak 1989-ko "Delors Plan" delakoa berpiztu egiten du. Honek hiru fase aurrikusten ditu. Lehen fasean, 1990-eko uztailaren lehenean hasitakoan, finantzen liberalizazio zabala ezarri zen, EEEan kapital eta finantz zerbitzuen fluxu librea uzten zelarik⁴. Bigarren fasea 1994ean hastea aurikusita dago, Europako Moneta-Institutuaren (EMI) eraikuntzarekin. Erakunde honen zeregin nagusia moneta-analisietarako irizpide estatistikoak elkar- tzea izango da. Hirugarren fasea 1997 eta 1999 bitartean jarriko dute martxan eta aipatu EMI Europako Banku Zentral (EBZ) bihurtuko da. EBZ Estatu partaideek izendaturiko teknikoez osatua egongo den administrazio-kontseiluak gobernatuko du. Hala ere,



EBZaren autonomia erlatiboa izango da, esaterako, gantio-tasei buruzko azken erabakia EEEaren Kontseiluak izango bait du.

Moneta-batasun honetan parte hartzeko, ekonomi hurbilketako prozesu baten barnean egotea ezinbestekoa da diru estatalentzat. Horretarako bost dira betebeharreko baldintzak:

- * defizit publikoak ezin du BPGaren % 3a gainditu.
- * zor publikoak ezin du BPGaren % 60a gainditu.
- * inflazioak ezin du, tasarik apalean dituzten hiru Estatuaren tasen batezbestekoaren % 1,5etik gora igo.
- * bankuen interes-tasek ezin dute % 2 baino gehiago gainditu interes-tasa apalena dituzten Estatuaren batezbesteko tasa.
- * moneta-sistemaren parte estuan ($\pm 2,5$) gutxienez bi urtez egon behar izango du batasunean parte hartu nahi duen monetak.

Gogoan izan, lehen bi baldintzek seriooki mugatzen dutela Estatuetakoko gobernuen iharduerarako ahalmena. Hiru eta laugarrenak inflazioa kontrolatzera behar izango dute eta bosgarrenak moneten egonkortasuna bermatu nahi du.

ECU indarrean jartzeko saio guztiek porrot egin badute, ez dirudi oraingoak aukera hobea duenik. Izan ere, gaur egun Frantzia, Luxemburg eta Alemania dira bost baldintzak osorik betetzen dituzten bakarrak. Italiak, Portugalek eta Irlandak ez dute bat ere betetzen eta Espainiako estatuak bigarrenaren soilik. Honela bada, EMSko ekonomia gehienek eraldakuntza estruktural sendoa izan beharko lukete moneta-batasunera heltzeko. Horren ezina Itunak berak aurrikusten du sarrera-eritmo desberdinez hitz egiten duenean. Horregatik, batasunera iristeko abiada bakarra ezezik erritmoren aniztasuna ere Itunak berak inplizituki du itsa-

tsirik. Areago, Ituna sinatzerakoan Erresuma Batua eta Danimarkak batasun-prozesu honetatik irteteko zuten eskubidea bermatu egin zen.

EMS kolokan


Itunak, eta bidenabar EMSk, zartada handia jasan zuen Danimarkako erreferendumean izandako emaitzaz eta Frantziakoaren atarian eta ondoren sortutako zalantzek Sistema kolokan ipini dute. Markoaren iharduera espekulatuzaileak egin du gainontzekoa. Zergatik Alemaniaren jokabide hau? Arrazoia simplea da: Alemaniak ez du interes handiegirik ECU eta Europako Banku Zentrala bultzatzeko. Markoa deuseztu eta politika ekonomikoen koordinazioa onartzean, Alemaniako Gobernuak egun ekonomia arloan duen ahalmenaren parte handia galduko duela bai bait daki. Zaila da Alemaniak hori ontzat ematea ekonomi krisiko egoeran eta Ekialdeko landerrek duten egoera ikusita. Gainera, aipa dezagun berriro, Alemaniak badu beste alternatiba posible bat bere proiektu ekonomikorako: Europako Ekialdea alegia.

Alemaniak, uztailean, interes-tasak igo (Ekialdeko Alemaniako berreraikuntza ekonomikoaren kostuei aurre egin ahal izateko) eta markoaren indarra areagotu zenean, bazekien neurri horrek EMBren prozesuan izango zuen eragina. Hala ere, ez zuen atzera egin, nahiz eta gero markoaren debaluazio arin bat jazo tirabirak baretzeko.

Honen ondoren, guztiok ezagutzen ditugun emaitzak izan dituzten gertakizunak daude: lira eta libra esterlina debalatu ostean EMStik kanpo aurkitzen dira egun, pezeta debalatu egin behar izan dute eta Alemaniako Banku Zentralak -Bundesbank- libra debalua ez dadin eskuhartu behar izan du. Libra EMStik urruntzeak definitiboa dirudi gutxienez epe ertainean. Lirak ere ez dirudi itzultzeko presarik duenik eta pezeta noraezean dabil.

Pezetaren ezintasunak

Horren dramatikoa ote da debaluazioa? Printzipioz ez. Ekonomian berehalako ondorio onak eta txarrak ditu. Ondorio txarrenak honako hauek dira: inporta-



tutako ondasunen prezioa igotzea (erregaiena, adibidez, berau dolarretan pagatu behar bait da), inflazioa gehitzea (pezetaren debaluazioagatik Kontsumorako Prezioen Indizea % 0,3 gehituko omen da) eta kanpo-zorra garestitzea. Dena dela, alde onak ere baditu: esportazioak gehitzea, turismoa areagotzea eta espekulazioa desanimatzea.

Pezetaren debaluazio honen tesuinguruan, Espainiako moneta-agintariaren zailtasun nabarmenena diru-espekulatuzaileen iharduera galaraztea da. Espekulatuzaileek (banku, finantz erakunde edo norbana-koak) mekanismo bakarra erabiltzen dute etekin mardulak bereganatzeko, moneta-sistema ezagutu eta beraz, arriskuari ekidinez: ahul dagoen moneta saltzea debaluazio posible baten aurrean; honela, debaluazioa gertatzean, berriro erosten dute baina merkeago oraingoan. Eragiketa sinple honekin negozio borobilak egiten dira.

Zer egiten du Gobernuak iharduera hau oztopatzeko? Moneta-debaluatu, interes-tasak igo (atzeraldia areagotzeko arriskuaz), kanpoko dibisen ordez pezetak erosiz Banku Zentralak eskuhartu (dibisak gutxitzen direlarik epe laburreko irtenbidea elikatzeko) -hau da Banco de España delakoak erabili duen bide nagusia-. Aukeran, dibisen gantzioen gaineko kontrola ere bada, Banco de España irailaren 24-ean ezarritako neurria, alegia. Azken hau EMSk duen filosofia liberalizazioaren kontrakoa da eta lehen kontraesanaren mamira garamatza.


Espekulaziorako eremu erakar-garriak dibisa ahuleko lurraldeak ditugu. Baina ahultasuna nola neurtzen da? Ez da erlazio aritmetiko zehatza, baina badakigu, moneta baten gantzio-tasa moneta horren zutabe den ekonomia produktiboak nazioartean erakusten duen pisu espe-zifikotik zenbat eta urrunago egon, orduan eta errazago zaiela espekulatuzaileei moneta-truke onuragarriak poltsikoratzea. Hauxe da joera espekulatuzaileek bereziki lira, libra eta pezeta aukeratzearen zioa.

Pezetaren gainbalorazioa

Espainian, PSOEn ekonomi politika monetaristaren es-

kutik interes-tasa altuak izan dira azkenaldian. Inflazioa murriztu eta EMSko gantzio-tasa finkoa errespetatzeko aitzakiaz, dirua garestitu egin dute eta nekazaritza, industria eta zerbitzueta enpresek maileguz eskatutakoa hain garestia izatean, inbertsio produktiboak beheratu du. Joera hau, produkzio-eremutik finantz eremurako deskapitalizazioak ere indartu du.

Interes-tasa altuen beste emaitza azken hamarkada honetako kanpo-kapitalen hazkuntza txikia izan da. Honela, ekonomia



produktiboak erakusten zuen dinamika ez, baina kanpotik kapitalak erakartzeak, eman izan dio indar-itxura pezetari. Egoera hau azkeneko urteotako konstante izanik, aurtengoan ekonomi adierazleek txarrera egin dute. Adibidez, urte honen hasieran defizit publikoaren helburua BPGarekiko % 1,5ekoa izanik, benetakoa % 6ra igoko omen da urte-amaieran. Halaber, kontu korronteko balantzearen defizita % 5 izatera iritsiko da, iazkoa % 2,5ekoa baino ez zenean.

Nahikoa izan da Alemaniak interes-tasak piska bat igotzea, erakuntza sendoa omen zen hori errauts bihurtzeko. Espekulatuzaileek pezetaren gainbalorazioa begibistan ipini dute, alajaina! Beraz, PSOEn ekonomi politikaren lehentasunak, hots, sektore publikoaren jokabidea mesprextatuz gantzio-tasa finkoari interes-tasen bitartez eutsi nahi izateak, produkzio-sistemaren geldialdia areagotu du, inportazioak sartzea bul-

tzatzen zen bitartean. Ekonomi politika honen emaitza honako hau da: enpresari produktiboarentzat pizgarri gutxi, industri sare murrizta, gerorako hazkuntza motela iragartzen duen kanpo-sektore ahula eta noraezean dabilen sektore publikoa.

Maastricht ez dago Alentejon

Europako Barne-merkatuaren funtzionamenduari laguntzen badio ere, moneta-batasuna ez da derrigorrezkoa asmo horretarako. Hala ere, helburu hori batasun ekonomikoa baldintzatzen ari da, eta serio egin ere. Bide horren arazoa honakoa da: batasunerako konpromezua duten herrialdeetako ekonomi konbergentziarako urratsik eman gabe ez dela posible, orain ikusi den bezala. Ekaitza hor egongo da aurrekontu eta harmonizazio fiskala gertatzen ez diren artean. Maastricht-ek agintzen dituen koordenadetan batasuna soilik nominala izango da eta, produktibitate, langabezia edota hazkunde bezalako beste ekonomi faktoreen ganean ez du eragingo.

Espainiako Estatuari dagokionean, Frantzia eta Alemaniaren European integratu nahiak hauxe eskatzen du gutxienez: ekonomi politikari norabide berria ematea, produkzio-sistema orekatzea eta kanpo-sektorea konkurriztailea izatea. Hots, ekonomiaren arazo errealei aurre egitea eta ez, espekulatuzaileek engainuaren gordintasunaz jabetzean, goitik behera desegiten diren finantz trikimailuak sostengatzea. Horrela ez bada, alferrikakoak izango dira bigarren debaluazioari ekiditeko egiten ari diren saioak eta lehen abiadurako European sartuko gareneko baiezipen ausartak bezain lortezinak egitea.

- 1 El País, 1992ko irailaren 20an.
- 2 Italiaren hondoraketa oso berria da; laurogeigarreneko hamarkadaren erdialderarte Elkarte Ekonomikoaren produkzio-hazkuntza garaienak ezagutu zituen, orduan krisiak bete-betean harrapatu bazuen ere.
- 3 Nekazal Politika Bateratua ere bultzatu zen, lehen sektorearen egoera zehatza kontutan hartuz.
- 4 Espainiako estatuan aurtun hasi da fase hau.